

noaua

**OEIT: "Erraustegiak
gaixotasunak
areagotzen dituzte"**

**Usua Zumetaren
lan grafikoa,
Sutegin ikusgai**

**Pirritx, Porrotx eta
Marimotots bisitan
datoz**

Argazkia: durangokozakaeus

**Durangoko Azokan
Usurbilgo sortzaileen lan ugari**

noaqa euskararen aterpe

Bazkideok egiten dugu posible

Astekaria, noaqa.eus, Kulturaldia, Santo Tomas azoka, Inauteri Jaia, Udajolas...

**BAZKIDE EGIN
ZAITEZ!**
eta opari eder
hau eskuratu!



Bazkidegiz: urtean 40 euro.

ABENDUAK

3

EUSKARAREN EGUNA

noaqa



MIRARI MARTIARENA & IDOIA TORREGARAI

**PAKIAN DAONAI
PAKIAN UTZI!
BINAKAKO BAKARRIZKETA**

2017 ABENDUAK 3 | SUTEGI, USURBIL | 19:30



URDAIRA

Sagardotegia

Abenduak 16, LARUNBATA
BARRIKOTEA
20.00h Urdairan



Aginaga 943 37 26 91

Kenia



NOAQA
BIDAIK

943 373 613

IRTEERA MAIATZEAN
Noaak gidatutako talde bidaiak.
Lasartetik irtenda.

Albiste iruditzen

“Errausketarik ez, ez gure izenean”

Erle Egunean, erraustegiaren aurkako giza-katea egin zen. “Errausketarik ez, ez gure izenean” pankarta eskuetan, kaxko inguruan ibili ziren eta ibilbidearen amaieran manifestu bat irakurri zuten Mikel Laboa plazan.

Munduan zehar egin diren ikerketa zientifiko ofizialak ekarri zituzten gogorra. Datu horien arabera, “erraustegi baten inguruan bizi diren pertsonen minbizia jasateko arriskua asko handitzen dela ikusi da”. Zubietako erraustegitik 5 kilometrotara 46.372 pertsona bizi dira eta 10 kilometrotara berriz 272.582. “Zenbat eta gertuago orduan eta kutsatzeko arrisku gehiago”. Horregatik, herritarrak erraustegiaren kutsadura salatzea deitu zituzten.

Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeak antolatatu zuen giza-katea eta elkartasuna eta babes osoa adierazi zieten Ainhoa Intxaurrendieta eta Iñaki Erraz-



Birziklatzearen aldeko eta erraustegiaren aurkako aldarrikapenekin amaitu zuten giza-katea.

kini, “aurreko legegaldian Gipuzkoako Foru Aldundian lanean aritu ziren bi kideei, erraustegia gelditu izanagatik. Eta PNV eta PSE alderdiek erraustegiarekin

daramaten kiratsazko politika kutsatzalea salatzen dugu”. Birziklatzearen aldeko eta erraustegiaren aurkako aldarrikapenekin amaitu zuten giza-katea.

Laburrean

Datorren astean, NOAUA!rik ez

Abenduaren 8an ez da NOAUA!rik izango, hurrengo astekaria abenduaren 15ean argitaratuko dugu. Abenduaren 22an urteko azkena, eguberrietako gehigarriarekin eta 2018rako egutegiarekin.

Inauteri Festarako gaia proposatzeko unea da

Otsailaren 10eko Inauteri Festan zertaz mozorrotu nahi zenukete erabakitzeko garaia da. Proposatu zuen ideiak elkar-tea@noaua.eus helbidera edo idatzi ta-bernetan jarriko ditugun zerrendetan.

Usurbilgo odol emaileen bazkaria

Abenduaren 8an, Antxeta jatetxean. Bertaratu nahi duenak otordurako eman dezala izena aurrez, abenduaren 4a baino lehen: 943 366 040 (Maite), 943 363 102 (Agustina).

noaua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 ||| elkartea@noaua.eus ||| www.noaua.eus

Jendaurreko ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria:

Aizpea Aizpurua.

Publizitatea:

Beatriz Alda,

publizitatea@noaua.eus

Diseinu berria:

Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Iñaki Irazusta, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak:

Lontxo Zubiria,

María Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbietta, Maddi Galbete,

Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa,

Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon

Etxabe, Alazne Begiristain, Denis

Elortza, Pello Aranburu, Xabier

Aranburu, Inma Balda, Luis Ara-

nalde, Nerea Zinkunegi, Maialen

Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia:

Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak

Euskal Herrira!



Garazi Lizaso Manterola

Euskara eta generoa I

A benduaren 3a ate joka dugu, euskararen eguna. Azaroaren 25eko (emakumeon aurkako indarkeriaren nazioarteko eguneko) puntu morea euskararen txantxangorriagatik aldatuko dute. Gorazarre egingo diote eta hasiko dira bibaka. Argitaratuko dituzte euskaldunon ondare den hizkuntzari buruz hamaika datu eta erreportaje: nahiz eta ezagutzak gora egin, erabilera beherantz doa. Eta antzerakoak.

Hamarkadak dira euskararen lege ez-eraginkorra indarrean dagoela. Aurrerapauso batzuk ikusten badira ere; lausoak dira, azalekoak, eta arazo honek errora joatea eskatzen du. Gaurkoan, aldiz, ez nator horren inguruan aritzera eta noan harira.

Zenbaitetan entzun dut euskara hizkuntza neutrala dela, ez dela sexista. Hiztunok, ordea, barneratu egi ditugu hainbat jarrera eta si-

nesmen. Gainera, gure burmuinak kutsatuta ditugu, sexismoa hizkuntzaren erabilera dago. Hori frogatzeko asmakizun bat egingo dizuet; hain zuzen ere, 1988an Garcia Meseguer-ek proposatu zuen bera: aita-semeak motorrean doaz. Istripiua izaten dute eta aita bertan hiltzen da. Semea larri zaurituta geratzen da. Anbulantzia batek ospitale hurbilenera eramaten du eta han denak hasten dira zirujauaren bila. Zirujauak oihu egiten du gaztea ikustean: “Ezin diot ebakuntzarik egin, nire semea da”.

Hona hemen galdera: zein da ebakuntza egingo duen pertsona? Erantzuna testu amaieran emango dizuet.

Asmakizuna asmatu bitartean, nik nire zalantzak kontatuko dizkizuet ea bat edo beste argitzen didazuen. Nire ustez, euskarazko hitz batzuek badute generoa, hala nola, ‘etxeko-andre’, ‘serora’ edota ‘emagalduta/prostituta/puta/ur-danga’ (zenbat termino gauza

bera esateko!). Zeintzuk dira hitz horien baliokideak gizonetzkoentzat? Euskaraz, noski. Alderantziz ere gertatzen da, ‘apaiza’ edo ‘erretore’ hitzekin, esaterako.

Horiez gain, asimetriak ere badaude gure hizkuntza kuttunean. Argi ikusten da hori, adibidez, ‘atsoa’ eta ‘agure’ hitzekin. Ez dira erabat berdin edo baliokideak. Lehenak zentzu gutxiesgarriagoa du bigarrenak baino.

‘Gizalege’ hitzaren balio berekoa izan liteke ‘emalege’, baina ez da. Aurrenekoaren esanahia aski ezaguna da: gizartean bizitzeak ezartzen dituen jokabide arauen begirunea. Gizonen giz-errotik dator (‘gizaki’ hitza ere hortik eratorria da). ‘Emalege’ gutxi erabiltzen da eta emakumearen hileroko odolaldiari egiten dio erreferentzia. Joera argia da, emakumeari dagokionak zentzu murriztagoa eta balio txikiagoa du. Beste adibide bat ‘emetasun’ terminoa litzake.

Hiztegira joz gero, honako hau topatuko dugu: 1. Batez ere Iparraldean. Emea edo ezitia denaren nolakotasuna, leuntasuna, amultsutasuna. Irainak emetasunez pairatzeko. 2. Emakumeari dagozkion tasunen multzoa. Ik. emakumetasun. Zer lotura ote dago ‘emetasun’ terminoaren bi esanahien artean? Ezitia edo leuna eta emakumeen tasunak hiztunon irudimenean ere lotuta ote daude?

Erantzuna: Hainbati adopzioaren gaia etorriko zitzaie burura, pentsatuko zuten: aita biologikoa eta adopzio-aita. Beste batzuei otuko zitzaie bikote homosexual bateko semea zela, hau da, bi aita zituen semea. Erantzun zuzena, berriz, “ama” da. Kosta egiten zaigu sendagile, suhiltzaile, abeltzain, zirujau, artzain, ingeniari, iturgin, enpresari eta antzekoen atzean emakumeak irudikatzea. Zergatik ote?

Luis Aranalde | **Garazi Lizaso Manterola** | Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Idoia Torregarai | Luken Arkarazo

Komikia



TOKIKOMeko hainbat hedabidek sustaturiko tira komikoa.

* Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: abenduak 15. Idatzia ekartzeko azken eguna: abenduak 11.

Errigoraren otar banaketa

Arakastatsua suertatu da beste behin, Errigorak udazken parte honetan bideratu duen "Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka" kanpaina. Nafarroa hegoaldean ekoiztutako 14.000 produktu otar eskatu dira Euskal Herri osoan eta guztion elkartasunari esker, 175.000 euro bideratu ahalko dira bertako euskalgintzara.

Usurbilen, Etumeta AEK eskalategian, Udarregi Ikastolan eta NOAUA! K.E.-ren



Hasi dira otarrak banatzen. Asteon iritsiko dira gure artera. Gogoan izan, otarrak jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak.

egoitzan eska zitezkeen otarrok azaroaren 14ra arte.

NOAUA!n 20 kutxa zuri eta 16 beltz eskatu dituzue. Internet

bidez kutxa zuri bat eta zortzi beltz.

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean banatuko dira otarrak

Otarrok ostegun eta ostiral honetan, azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean banatuko ditugu. Jaso bezain pronto otarrak eskatu dituzuenekin hartuemanetan jarriko gara. Produktuok jasotzerakoan egin beharko dira ordainketak. Gogoan izan, otar bakoitzak 50 euro balio du.

Ika-mika

Haimar Taldearen eskertza

Haimar Zubeldiaren homenezko ekimenen antolatzaileak Usurbilgo Udala eta Haimar Taldea izan gara baina ezinbestekoa izan da eragile eta norbanako askoren lana.

Arritxu Iribar, Josu Mirena Errekondo, Aitziber Lanberri, Joakin Pagola, Iñaki Furundarena, Joxe Leon Lizaso, Miguel Soroa, Inaxio Unanue, Jose Mari Letamendi, Angel Matxain, Jon Carbayeda, Goio Martin, Joseba Zubeldia, Mikel Soroa, Iker Lizaso, Mikel Arrona, Kepa Unanue, Arkaitz Portularrume, Jokin Errasti, Imanol Matxain, Aiert Goia, Arkaitz Errazkin, Subiñas, Aberri, Mikel Aranburu, Ja-

vier Erzilla, Xabier Mikel Errekondo, Iñaki Errasti, Imanol Agirretxe, Alex Udabe, Sarai Lizaso, Xabier Sancho, Amador Granados, Imanol Nazabal, Aspanogi Elkarteko kideak, Eneritz Agirre, Ugaitz Agirre, Iñaki Arrona, Maria Jesus Agirre, Joxe Julian Zubeldia, Jule Zubeldia, Ane Zubeldia, Josune Peñagarikano, Ramon Unanue eta Juanjo Arrospideren senideak, Juan Mari Tolin, Karlis Mendrano, Iñaki Azanza, Rafa eta Luis Angel Gomez, Kristof Ramon, Roberto eta Luca Bettini, Imanol Nazabal, Ainara Hernando, herriko eta familiako artxiboa, Usurbilgo Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal-Institutuko sukaldaritzako ikasleak, Aitzaga

Elkarteak, Unai Garcia de Eulate, Ainhoa Arrozpide, Irati Portu, Eñaut Pagola, Aitzol Agirre, Aritz Holgado, Paulino Ibargoiien, Beñat Lizaso, Murtxe Arzallus, BERRIA, Alberto Pikabea, Pako Agudo, Iker Mujika, Iñaki Aranburu, Porrotx, Aritz Esnal, Aitor Agirre, Mikel Alkorta, Ana Zuriarrain, Naia Alzola, Aitzol Arrozpide, Errazkin Bike Repair, Udal ordezkariak Xabier Arregi eta Iñaki Ugarte, Baxurde Txiki taldea, Grupetako txirrindulariak, Kuadrilla, Senideak, Bordatxo Taberna, Aginaga Sagardotegia eta Aginagako frontoian argazkia ateratzea erraztu zutenak.

Antolaturiko ekimen guztiak jendetsuak izan dira. Azpimarratu eta eskertu nahiko

genuke usurbildarren parte hartzea. Baina bereziki aipatu: - Erakusketara gerturatu diren Udarregi Ikastolako ia 300 ikasleak. Hori bideratzeko zuzendaritza eta irakasleen prestutasuna eskertu nahi dugu.

- Andatzako ibilaldian parte hartu duten herriko Irisasi BTT taldeko kideak. Eta ezin amaitu genezake ekimenei oihartzuna eman dieten komunikabideetako bat azpimarratu gabe. NOAUA herri aldizkaria. Mila esker guztioi eta aipatu gabe geratu zaretanoi aurrez barkamena eskatzen dizuegu.

Haimar Taldea



GHKren tarifak kalkulatzeko irizpidea aldatzeko eskaera

Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak (GHK) bere tarifak kalkulatzeko baliatzen duen irizpidea bidegabetzat jotzen dutenez, aldatzea eskatzekoak ziren Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalak, aurreko ostiraleko San Marko Mankomunitatearen batzarrean. Batzar horretan hain zuzen, GHKren tarifaz eztabaidatuko dute udalek. Baita “batzarreko erabakia GHKra eramateko” ere, adierazi dute Usurbilgo Udaletik.

Aipatu moduan, bidegabetzat jotzen dute egun GHK-k tarifak kalkulatzeko aplikatzen duen irizpidea, “izan ere, ondo ari dena saritu beharrean, zigortu egiten du. Eta hori lehenbailehen aldatzeko eskatu dute, hondakinen kudeaketaren gainean dauden lege eta zuzentzariek ezartzen dituzten printzipioak jarraitu nahi badira, bederen. Esaterako, Europako Hondakinen Zuzentzarauak adierazten duenez, kutsatzen duenak ordaindu behar du. Espainiako uztailaren 28ko 22/2011 Legeak ere printzipio hori onartzen du. Beraz, biohondakina murriztu edota gaika gehien biltzen duena ezin da zigortu”.

Irizpide aldaketa, errefusaren eta biohondakinen tarifetan

Gaur egun, GHK-k biohondakinen zenbatekoa errefusaren tarifaren arabera kalkulatu duela gogorarazten dute udalak, “eta, ondorioz, irizpide horrek zigortu egiten du biohondakina murriztu eta gaika gehien biltzen duena. Errefusarekin loturarik ez duen hondakin baten tarifa kalkulatzeko, zergatik hartu behar da errefusa abiapuntutzat?”.

Udalon ustez irizpideak aldatu beharko lirake, “bio-



Usurbil, Hernani eta Oiartzungo Udalek aurreko ostiraleko San Marko Mankomunitatearen batzarrean irizpide aldaketa eskatu zuten.

ERREFUSAN DAGO GAKOA

“Errefusa da birziklaezina den zatia. Beraz, kutsatzen duen zatia. Horregatik, hiru udalon ustez, errefusaren kostuak gainerako hondakinen kostuak baino garestiago beharko luke izan”

hondakinaren tarifa beronen tratamenduaren kostuaren arabera kalkulatu beharko litzateke, baita garraioaren kostua ere. Hau da, biohondakinari dagozkion gastuak soilik ezarri behar zaizkio tarifari. Izan ere, nola da posible udal batentzat garestiagoa izatea biohondakinak GHKren bidez tratatzea enpresa pribatu baten bidez

tratatu baino? GHKren tarifa 138,49 euro/tn da, eta enpresa pribatuarena 33 euro/tn. Halaber, biohondakina gaika biltzea bultzatzeko, hobariak jartzeko eskatu dute, izan ere, helburua errefusarekin biohondakinik ez nahastea izan behar du”.

Hondakinen kudeaketaren eskumena udalena da

Errefusari dagokionez, “errefusa da birziklaezina den zatia. Beraz, kutsatzen duen zatia. Horregatik, hiru udalon ustez, errefusaren kostuak gainerako hondakinen kostuak baino garestiago beharko luke izan. Modu horretan beste hondakin motak birziklatzera bultzatuko litzateke. Hau da, errefusaren tarifak bere tratamendu kostua ordaindu behar du, eta beste zatia baino garestiagoa behar du”.

Gogoan izan, hondakinen kudeaketaren eskumena udalena da. Erabaki hau GHK-ra eramatea eskatzen dute udalek, kontsortzio hau arduratzen baita egun errefusaren eta organikoaren tratamenduaz.

Erraustegiari buruzko eztabaida publikoa egiteko eskaera

Hainbat ordezkari politikori herritarrek galderak egiteko osoigo.com plataforma irekiak eskaintzen duen aukera baliatuta, Ipar Haizea taldeak galdera zuzena luzatu dio Markel Olano Gipuzkoako Ahalduen Nagusiari: “Alde eta aurka dauden adituen arteko Zubietako erraustegiaren eraginei buruz EITBk eztabaida publikoa ematea babestuko

zenukete?”. Plataforma beretik, eztabaidarako gonbita beti ongietorria dela erantzun du Olanok, etorkizuneko erronkak eta erantzunak definitu behar dituen ezinbesteko ariketa dela. Baina edozein kasutan, EITB-k erraustegiari buruzko eztabaida publikoa emateko change.org ataritik jada 4.000 lagunek baino gehiago eginiko

eskaeran EITBk duela azken hitza. Zubietako errauskailuak Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren inguruan dagoen eztabaida konpontzen duela berresten du halere beste behin Markel Olanok. Gipuzkoak. “Europako hondakinen tratamendu azpiegitura abangoardista, seguru eta garbientako bat izango du gure herrialdeak”, adierazi du.

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak erraustegiko lanak etetea eskatu du

2004. urteaz geroztik urteak daramatzate gizartea ohartarazten, eta berriz gogorarazi zigten kezkatzeko modukoa den mezua. “Erraustegiek gaixotasunak areagotzen dituzte, publikatutako azken ikerketen arabera”, hala adierazi du eremu honetan, hau da, erraustegiak herritarren osasunean izan dezakeen eraginaz kezkatuta lanean diharduten mediku eta osasun arloko langileez osaturiko Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldeak, Potxoenean azaroaren 25ean egin zuen agerraldian.

Ondorio argi honekin, Zubietan, Donostiako lurretan eraikitzen ari diren erraustegiko lanak etetea eskatzen dute, zentzuz jokatzeko administrazio publikoari “eta obra honen bultzatzaileei eskatzen diegu beraiekin biltzea ikerketa hauen guztien berri emateko”.

Argi diote OEIT-tik, jada “koska ez da errauskailua kaltegarria den osasunerako ala ez, baizik eta zenbateraino den kaltegarria”.

Zabalgarbiko erraustegi inguruko barazkiak ez jateko aholkua

Zubietako erraustegiko lanak etetea eskatzearekin batera, martxan den Bizkaiko Zabalgarbiko erraustegia inguruan izaten ari den eraginaz kezkatuta agertu zen OEIT, “bereziki, inguruko landareztan aurkitutako arsenikoaren mailagatik. Izan ere, maila hau boskoiztu egin da erraustegia martxan jarri zenetik. Honen ondorioz, bere inguruan landatutako barazkiak jatea osasun arrisku bat izan ahal da kontsumitzaileentzat”.

Zabalgarbi inguruko barazkiak ez kontsumitzea aholka-



“Publikatutako azken ikerketen arabera, erraustegiek gaixotasunak areagotzen dituzte”.

OEIT MEDIKU TALDEA

“Zubietako errausketa plantaren bultzatzaileei eskatzen diegu beraiekin biltzea ikerketa hauen guztien berri emateko”

tzen du OEIT-k eta Ingurumen Sailari ikerketa bat egiteko eskatzen diote, bi helbururekin; “lehenengoa, zehaztea nondik datorren landareztan metatzen ari den arsenikoa eta bigarrena, bertako barazkiak jatea arriskutsua izan zitekeen eremuaren mugaketa egitea. Halaber, aipatutako sailari eskatzen diegu Zabalgarbiren kautelazko geldiera, ziurtatu arte erraustegia ez dela arsenikoaren mailaren igotze horren iturburua”.

Hainbat ikerketetan oinarritutako ebidentziak

Erraustegi berriek herritarren osasunerako eraginik ez dakarrela esan dutenak, OEIT-rentzat balorazio pertsonalak direla gogorarazten dute, “ebidentzia zientifikoetan oi-

narritu gabekoak. Guk, aldiz, ehunetik gora ikerketa aztertu ditugu, eta ez dugu aurkitu erraustegiek osasunean kalterik sortzen ez dutela frogatzen duen ikerketarik. Kontrakoa da aurkitu duguna”.

Hainbat adibide aipatzen ditu OEIT-k. Erraustegiek (baita berriek ere) osasunerako ondorio kaltegarriak dakartzatela agerian jartzen dituen hainbat ikerketa:

■ 2011, Ranzi: pleurako eta maskuriko minbiziaren hilkortasuna handitu egin da.

■ 2014, Golini: gaixotasun kardiobaskularrak eta arnasbidetakoak (azken hauek adin pediatrikoan ere) izateko arriskua handitzen dela frogatzen du.

■ 2015, Ancora: pankreaseko minbiziaren handitze bat frogatzen du. Honekin batera pleurako, gibekeko eta laringeko minbiziengatik emandako ospitalizazioen handitzea eman zen.

■ 2016, Minchilli: gaixotasun kardiobaskularrak garatzeko arriskua handitzen da.

■ 2016, OME: erraustegi berriek ere biztanleriaren osasunean eragiten dute.

Ikerketa hauek jendaurrean ezagutaraztea ezinbestekotzat jotzen du OEIT-k, “beti ere kalitatezko eta nazioartean oniritzia jasotako ikerketa zientifikoetan oinarrituz” eta gaineratu zutenez, “kontuan hartuta errauskailuaren aldeko ordezkari instituzionalek egon daitezkeen arriskuak neurtzeko behar-beharrezkoa den informazioa ukatu egiten dietela herritarrei”. Zubietan eraikitzen ari diren erraustegia jarri zuten adibide gisa.

Egiatzatutako eta kalitatezko informazio zientifikoa zabaltzeko konpromisoa berretsi zuen OEIT-k, eta iragarri zuten, “hau lortzeko hiritar guztien eskura jarriko ditugu aipatutako ikerketa guztiak sare sozialen bidez”. Honekin batera, eremu ezberdinetako eragileekin harremanetan jartzeko asmoa dute. Bileren ondoren honen “helburua izango da errauskailuak osasunerako kaltegarriak direla frogatzeko ebidentzia zientifikoa nahikoa badagoela jakinaraztea”.

Osasuna eta Errausketa Ikerketa Taldearen berri bideotatik jaso dezakezue:

Facebook: OEIT GEIS
twitter.com/OEIT_GEIS

Gaztelekukoak, “Beldur barik” lehiaketan

Emakundek, EAE-ko udal, Aldundi eta Jaur-laritzaren laguntzarekin urteak daramatza Beldur Barik egitasmoa sustatzen. “Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa” erakusteko. Beldur Barik Jarrera lehiaketak 8. edizioa du aurten.

Gaztelekuko talde batek ere Beldur Barik lehiaketan parte hartu du. “Ze guapa gauden...” izeneko bideoa landu eta aurkeztu dute Maddi Zuloagak, Garazi Santosek, Izaro Goenagak, Karmele Arrillagak, Naroa Guembek eta Ane Giraldesek. Bi kategoriatan banatua dago txapelketa, Gaztelekuko kideok 12-17 urte artekoen artean parte hartu dute. 274 lan aurkeztu dira kategoria horretan, 18-26 urte artekoen artean, beste 96. Guztira ia 400 lan, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa osoan. Este-reotipoez, rolez, askatasunaz mintzo dira, Glaukoma musika taldeko “Kalima” izeneko laneko Gure Kaiola abestiak



“Sozialki berdina, gizalegez ezberdinak eta erabat askeak izateko mundu baten alde” aldarrpean mobilizatu ziren aurreko larunbatean kadete eta jubenil nesken mailako eskubaloi jokalariek.

BELDUR BARIK LEHIAKETA

Gaztelekuko talde batek Beldur Barik lehiaketan parte hartu du. Glaukomaren kantuan oinarritzen den “Ze guapa gauden...” izeneko bideoa landu eta aurkeztu dute

musikaturiko bideoan. Atari honetan ikusi dezakezue: beldurbarik.org. Lan sarituak larunbatean, abenduaren 2an emango dira ezagutzera Eibarren ospatuko den Beldur Barik Topaketan.

Eskubaloi taldea

“Sozialki berdina, gizalegez ezberdinak eta erabat askeak izateko mundu baten alde” aldarrpean mobilizatu ziren aurreko larunbatean, ondoko irudian dituzuen kadete eta jubenil nesken mailako eskubaloi jokalariek.

Bi udal adierazpen, bat EH Bildurena eta bestea PSErena

Usurbilgo Udaleko udalbatzarrak astearte honetan egitekoan osoko bilkuran, Azaroaren 25ari lotuta EHBilduk eta PSE-k aurkezturiko adierazpenak bozkatzekoak ziren. Hurrengo astekarian xehetasun gehiago.

“Berdintasuna Erein” saioa

Usurbilen berdintasunaren gaia eremu ezberdinetan nola ikusten dugun adierazi, iritzia eman, zalantzak argitu eta ekarpenak egiteko aukera izango da Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak abenduaren 13rako (asteazkena) 18:00etan Potxoenean antolatutako duen “Berdintasuna Erein” saioan. Herritar nahiz eragileei zuzenduriko bilera irekia izango da. Deitzaileek nabarmentzen dutenez, Udalak onarturiko Berdintasun Planak aurreikusitakoa betetzera doaz; berdintasunaz iritzi, ekarpen trukaketarako herritar eta eragileen gune bat sortzera alegia.

Eguneko arreta zerbitzua jarri dute martxan Artzabalen

65 urtetik gora izan eta mendekotasun maila txikia duten herritarrei zuzendua egongo den Eguneko Arreta Zerbitzu berria abenduan martxan jarri asmo du Usurbilgo Udalak, ohar bidez berri eman duenez. Egunotan erabiltzaile izan daitezkeen herritarrei gutuna helarazi zaie, zerbitzu honekiko interesa izanez gero Gizarte Zerbitzuetara joan edo bertara deitzera gonbidatuz. “Zerbitzu horren bidez Usurbilgo Udalak kalitatezko bizitza bermatu nahi die pertsona nagusiei, eta mendekotasun arina duten adinekoei euren autonomiari eus-

ten lagundu”, berri eman dute Udaletik.

Honez gain, “herritar nagusien kalitatezko bizitza, osasuna (fisikoa nahiz psikikoa), familia eta adiskideekin dituzten harremanak mantendu, aisialdiaz gozatu eta era guztietako arazoak prebenitzen laguntzeaz gain, parte-hartzaileen gustoko ekintzak egingo dituzte, hala nola tailerrak, tertuliak, esku-lanak, memoria lantzeko tailerrak eta ariketa fisikoak”. Guztia astelehenetik ostiralera hiru orduz Artzabalen, hezitzaile dinamizatzaile-batekin. Taldea osatu ahal izateko

gutxienez 6 kide beharko dira. Prezioak Buruntzaldeko udalen artean adostuko dira. “Eguneko euro bat, bi euro edota 3 euro ordainduko dira, bakoitzaren diru-sarreraren arabera. 60 euro kostatuko da hileroko, gehienez ere”.

Buruntzaldea mailan Usurbil izango da zerbitzu hau martxan jarriko duen lehen udalerria. Usurbilgo Udalaren eskariz Aztikerrek joan den maiatzetik ekainera 65 urtetik gorako herritarren egoera, beharrak eza-gutzeko eginiko ikerketa soziologikoan egindako eskarietako bati erantzun dio udal zerbi-

tzu berri honek.

Ikerketa hartan hain zuzen, udal zerbitzuei 8,1eko puntuazioa eman arren, “eguneko arreta faltan botatzen dute, eta gehienek zerbitzu hori herrian jartzea ondo edo oso ondo baloratuko lukete, eta askok erabiliko zuketela adierazi zuten. Hain zuzen, eskari hori aintzat hartu, eta zerbitzua eskaintzeko asmoa du Udalak”.

Informazio gehiago Gizarte Zerbitzuetan:

943 377 110

Kale Nagusia beheka 43
Ordutegia: 9:00-14:00

Euskararen Egundari eskainitako asteburua

Abenduak 1, ostirala

■ Egunean zehar, “Gaur egiten dira 9 urte Mikel Laboa hil zela. Usurbilen hainbeste maite genuen Mikel gogoan izango dugu egunean zehar bere musika entzunez”.

■ Sarrera eta irteera orduak euskal musikaz girotuko ditu Zubietako eskolak.

■ 12:10 LHko ikasle eta irakasleen euskal abestien kantaldia Mikel Laboa plazan. Eguraldi txarrarekin frontoian.

■ 14:30-16:30 Aginagako eskolako gurasoak eskolara gerturatuko dira, pasadizoak, txistek, ipuinak... kontatzera.

■ 16:15 Udarregi HH-koak jolastokira irtengo dira abestera.

■ 17:00 Buruntzaldeko Euskararen Ginkanaren finala Hernaniko Orona Ideon. Finalisten artean da Usurbilgo “Negu”. KutxaEkogunea eta Buruntzaldeko Udalen ekimena.

Abenduak 2, larunbata

■ 16:00/18:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots “Borobilean” ikuskizunarekin Oiarde Kiroldegian. Sarrerak aurrez eskuratu ahalko dituzue Bordatxo tabernan eta Marije dendan. Argiaren Usurbilgo Lagunak.

Abenduak 3, igandea

Aginagan

■ 11:00 Mural pintaketa Aginagako frontoi inguruan.

■ 17:00 Txaloka taldearen “Bualá” haurrentzako jaialdi paregabea Aginagan. “Bualá sukaldariak inoiz sukaldatu den postrerik goxoaren bila dabilta. Beharrezkoak diren trikimailu eta jakintza guztiak jarriko dituzte martxan haien asmoa lortzeko. Sukaldean gertatuko den abentura miresgarri honek, zentzuen eta imaginazioaren munduan murgilduko zaituzte”. Antolatzailea: Antxomolantxa Elkarteak.

■ 18:30 “Erdibana” antzezlan



Txaloka taldeak ‘Bualá’ ikuskizuna eskainiko du Aginagan. Igande honetan arratsaldeko 17:00etan.

ZIPI ETA ZAPE SUTEGIN

Igandean arratsaldeko 17:00etan ‘Zipi eta Zape’ filma eskainiko dute. Sarrerak egunean bertan salgai, 3 eurotan

Aginagako Eliza Zaharrean.

Txalo konpainiaren komedia, Begoña Bilbao Lejarzegik zuzendurikoa, Joxe Ramon Soroz eta Iker Galartza aktoreekin. “Adineko amak enbolia bat izan du, baina lapa bat legez heltzen dio bizitzari. Bi seme heldu ditu, eta amak haiei sekulako mesedea egingo lieke azken hatsa emanez gero”.

Sarrerak egunean bertan eta

alde zurretik Aginagako Zaharren Egoitzan.

Antolatzailea: Aginagako San Praixku Guraso Elkarteak.

Usurbilen

■ 17:00 Haurrentzako zinea euskaraz Sutegin: “Zipi eta Zape”. “Zipi eta Zape zigortu egin dituzte uda Esperantza ikastetxean igarotzera. Berreziketara zentro bat da hori, Falconetti betoker beldurgarriak zorrotz zuzentzen duena. Laster jakingo dute leku hartan jolastea ere debekatu dagoela. Hortxe sortuko dute Kaniken Kluba, helduen aginpideari erronka botatzen dion umeen erresistentzia. Adimena, ausardia eta adis-

kidetasunean duten fede etenezinaz baliatuz, ikastetxean gordetzen den sekretu misteriotsu bat aurkitu eta euren bizitzetako abenturarik zirraragarriena biziko dute”.

Sarrera: 3 eurotan egunean bertan salgai Sutegin. Antolatzaileak: Usurbilgo Udala eta Ziortza G.E.

Udajolas, oharra

Udajolas-en umeek utzitako arropa Noaua!ko bulegoan dago. Arroparen bat falta duenak NOAUA!ra etor dadila. Bestetik, Udajolas-eko bideo eta argazkiak nahi dituenak eskaera bideotatik bidera dezala: 943 360 321 edo elkarte@noaua.eus

Igandean Sutegin: “Pakian daonai pakian utzi!”

“Pakian daonai pakian utzi!” izenburupean, Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai umorez arituko dira euskaratik eta euskaraz, binakako bakarrizketa osatuz. Bakean dagoena bakean utziko duten ez dakigu, bazterrak zirikatuko zaituztetela, ziur!

Solasaldia

■ Abenduak 3 igandea.
■ 19:30ean Sutegin, doan.
■ Antolatzailea: NOAUA! K.E.



Idoia Torregarai eta Mirari Martiarena izango dira oholtzara igoko direnak.

Eperra ikastola laguntzeko kanpaina azken txanpan



Urdiñarbeko Herriko Etxeko egongelan, 200 lagunentzako afaria eman zuten. Batu zuten dirua Seaskako ikastolako integrazio batzordearentzat izan zen.

Abenduaren 11ra arte eskatu ahalko dituzue Zuberoako Eperra ikastola laguntzeko Nafartarrak taldearen eskutik Usurbilen abian den elkartasun kanpainako produktuak NOAUA!n, Bordatxon, Aitzagan eta Txiribogan edo lonxo@telefonica.net helbidera idatzita.

Eskatzen dituzuen otarrak, NOAUA!k abenduaren 17an San Tomas Azoka egunean banatuko ditu Nafartarrak taldeak. Azokaren baitan, ekitaldi batekin jasotako laguntzaren berri emango dute.

“Behin bazen ikastola” CD-a:
Zehaztasunak: Hebertik elkar-teak Eperra ikastolako haurrekin osatua.
Prezioa: 10 euro.

Ahüski otarra:

Produktu sorta: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa artisanala (150 g), ezitia (500 g), euskal xerriki pateaa (200 g), euskal xerriki odolkiak (200 g). Prezioa: 40 euro.

Irati otarra:

Produktu sorta: ardi gazna (450 g), ahate gibela (125 g), bixkotx poltsa bat artisanala (150 g), ezitia (500 g), euskal xerriki lukainkak (400 g), axoa xahalki xehatua saltsan (640 g). Prezioa: 52 euro.

Aurten ere bai

Ez dakigu ziur aurtengoarekin zenbagarren afaria den, baina taldekide dugun lagun batek laster ziurtatuko digu zenbagarren izan den. Dakiguna zera da,

hogeit bat urte daramazkigula Urdiñarbe, Usurbil, Aginaga eta beste hainbat zuberotarren arteko zubi lanak egiten, beti ere sagardoa bide lagun izanda. Aurtengoan 200 bat lagun inguru elkartu gara Urdiñarbeko Herriko Etxeko egongelan, eta uste dut ez dagoela esan beharrik goizaldeko ordu txikiek harropatu zigutela. Afari honen bitartez, Seaska ikastolen elkartearen baitan kokatzen den integrazio batzordearentzat diru mordoxka bat biltzea lortu dugu. Eta urtero bezala, agurtzeko ordua heltzen denean hurrengo urtean egingo dugun afariak mintzatzeko amaitzen dugu. Beraz, jarrai dezagun hegoalde eta iparraldeko harremanak sustatzen eta hurrengo urteko Urdiñarbeko sagardo afarian ikusiko gara!

Lontxo Zubiria

Lurzaindiaren kanpaina berria

Tokiko laborantza babes-teko jardunean ari den Lurzaindiak elkartasun kanpaina berria abiatu du. 71.200 euro bildu nahi dituzte, 26 hektarea, ahuntzategi eta gatzategi bat dituen Arrokiagako (Zuberoa) Eskanda etxaltea erosi ahal izateko. “Erosketa horrek, Anne Lavis Valoniako laborariaren lana salbatuko du, 2006tik goiti alokatzen baitu etxaldea eta saltzeak lanjerrean ezartzen duelako”. Laguntza emateko Lurzaindiaren akziodun bilaka zaitezke. Informazio gehiago: lurzaindia.eu

Gazte Eguna, dantza batean



Kontzertu gauaren eta afariaren aurretik, euskal abesti ezagunekin kalejira bizi eta dantzagarria ospatu zen Kaxkoan, elektrotzarangako eskutik. Gazte mordoa batu zuen azaroaren 18ko hitzorduak.

“Kabaret” ikuskizuna



Ouarda Mallalek antolatuta, Usurbilgo nahiz eskualdeko dantzarien eskutik “Kabaret” ikuskizuna eskaini zuten azaroaren 18an Sutegin. Munduko dantzei tartea egin zitzaien.

“Hitzartu”, konponbiderako parte hartze prozesua abiatzera doa GuraSOS

Eztabaida ez izatea nahi baldin badute, eztabaidatuko dugu; parte-hartze ez badute nahi, parte-hartze prozesu bat martxan jarriko dugu; ez badute Plan bat egin nahi, Plan bat egingo dugu; sumindura eta gatazka nahi baldin badute, adostasuna sortu eta eraikiko dugu. Gai garen jendartea garelako agerian utziko dugu”. Hondakinen kudeaketaz eztabaidatu, eztabaida horretatik etorkizunerako plan bat landu eta hainbestetan aldarrikatu izan duten moduan, Gipuzkoako gai honetan dugun arazoari konponbide adostua emateko konpromisoa berretsi du GuraSOSek.

Bide horretan ematekoak diren hurrengo urrats garrantzitsua iragarri dute. Joan den maiatzean agerraldi bidez etorkizunera begira jorraztekoak ziren lan-ildoan artean aurreratu zuten parte hartze prozesua.

2016ko ekainean Gipuzkoako Foru Aldundiak egitekoa zela iragarri arren, gerora egin ez duen ekimen honekin gipuzkoarrei hitza hartzeko aukera eskaini nahi diete. Hitza hartzea eta adostasunera heltzeko gonbita luzatzen digute. Izen horixe du gainera gizarte zibiletik jaioko den eta laster abiatzekoak diren parte hartze prozesuak; “Hitzartu”.

Kohesio soziala, osasunaren babes eta Europako araudia ardatz

Parte hartze zuzena eta adostasuna ukatzen zaion Gipuzkoako gizartearen gehien-goaren bilgunea izan nahi du. Hiru ardatz nagusien bueltan jorrazteko nahi dute prozesua: “Kohesio sozial handiena lortzea, osasunaren babes handiena lortzea eta gaia Europako araudiari egokitzea”. Euskal



Araoari konponbide adostua emateko konpromisoa berretsi du GuraSOSek.

HIRU ARDATZ

Hiru ardatz nagusien bueltan jorrazteko nahi dute prozesua: “Kohesio sozial handiena lortzea, osasunaren babes handiena lortzea eta gaia Europako araudiari egokitzea”

Herriko Unibertsitatearen “Parte Hartuz” ikerketa taldeak diseinatuko du prozesua. Horren “emaitza izango da 2017-2030 Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planaren proposamena”. Plan hau landu ostean, “erakundeei helaraziko diegu. Bertan adostasun soziala eta irtenbide teknikoak islatuko dira”, adierazi dute GuraSOSetik. Gogoan izan, aurreko Gipuzkoako hiri hondakinen kudeaketa plana, 2002-2016 artekoa, duela urtebete iraungi zela.

Plana ez da berrikusi

“Foru agintariak ez dute 2016an aurkeztu zuten Plan berri bat tramitatu. Helburua: gizarte eztabaida saihestea kontratua esleitu baino lehen. Are gehiago, Plana ez da berrikusi (azkeneko berrikuspena orain dela 9 urte egin zen, 2007ko datuetan oinarrituta).

Inork ez du aztertu nahi izan erraustegia beharrezkoa ote den gaur egun, edota beste aukeraz baliatzea, Zabalgarbiko (Bizkaia) erraustegia erabiltzea, esate baterako”, diote GuraSOSetik.

Gehiago politikoen alternantziak gai hau konpontzea ez duela bermatzen diote, eta 4 urtetik behin “txeke txuria emateko artegitik ateratzen uzten gaituzten ardi otzak bezala tratatzen gaituzte. Gainontzeko gauzez beraiek arduratzen dira. Jendarteari galdera zehatz bat luzatzen diogu: hau onartu behar dugu? Edo jendarteak gai honi eutsi eta izango da erabakiko duena gatazka edo adostasuna, parte-hartzea edo inposizioa?”, galdetzen dute GuraSOSetik”.

Hilabete eta asteotan, eremu ezberdinetako gizarte eragileei aurkezten ari zaie Hitzartu ekimena, “aukera bat izango da, foro eta tresna bat, azken batean, herritarrek euren eskubidea praktikara eraman dezaten: beren arazoez informatzeko, eztabaidatzeko, eta elkarriketaren bitartez onbideratzeko eskubidea. Gehiago sozialak, adostasuna gailenduz, gatazka eta gaur egungo zein etorkizuneko segurtasun falta honekin amaitzeko duen gogoari erantzun dio honek”.

Eratzea, abenduaren 16an

GuraSOSek jada abenduaren 16rako finkatu du, Hitzartu parte hartze prozesuaren eratzeko publikoa. Argi diote, hondakinen kudeaketarekin dugun arazoaren inguruan, “azken hitza herritarrena izango da”. Herritarroei eragiten diguten aferetan, hondakinen kudeaketaren gaian kasu, herritarren parte hartze zuzena eta erakundeen legimititatea gatazkan jarri nahi dituztela nabarmentzen dute GuraSOSetik. Baina gogorarazten dutenez, “Oker larria da. Parte-hartze zuzenak demokrazia aberasten du, eta legimititatez jantzen du. Hori saihestek demokrazia bera ahultzen du eta erakundeen legimititatea”.

Parte hartzeari buruzko kongresua

Gipuzkoako Foru Aldundiak herritarroei eragiten digun hondakinen kudeaketaren gaian parte hartzeko aukerarik eman ez eta aldi berean aurreko asterako iragarri zuen parte hartzearen inguruko 1. Kongresua antolatzea, “uste dugu zoritxarrez Institutioaren irudi garbiketa dela” dio GuraSOSek. “Egiten ez dutena salduz beraien burua goraiatu nahi dute... Goraiatzen duten egiteko modu hori martxan jartzea besterik ez dugu eskatzen”.

Urteko egunik gozoena

U surbilgo Erle Eguna erro sendoak ditu. Jendetza batu ohi da eta eztigileen artean ere, erreferentziako hitzordua da. Igande eguerdian hobera egin zuen eguraldiak eta, horri esker, herritar ugari ibili zen Dema plazako salmenta postuetan. Ohi bezala, elizatik jaitsi zen erle erraldoi batek ekarri zituen eztigile sarituentzako txapelak.

Goizean goizetik hasi ziren prestaketa lanak. Salmenta postuetakoak izan ziren goiztiarrenak. 10:00ak aldera hasi ziren ezti eta gozogintza lehiaketara aurkeztu ziren parte hartzaileak hurbiltzen. Eguerdirako, Dema plazako postuetan giroa pil-pilean zen. Kilometroak 2018 eta Usurbilen Nahi Ditugu taldeek postu bana jarri zuten. Taloaren txokoan, ilara luze bat sortu zen. Horretaz gain, Gure Esku Dago taldekoak boletoa saltzen ibili ziren.



Argazkikoak, aurtan sarituak izan diren eztigileak.

LEHIAN, 63 EZTI

Ohi bezala, partehartze handiko eguna izan zen. Ezti lehiaketan, 63 pote dastatu behar izan zituen epaimahaiak. Gozogintzan, aldiz, 10 postre

Epaimahaiak bere lana egiten zuen bitartean, erlaun-

tza ikusi edota argizaria nola egiten den ezagutzeko aukera egon zen.

Saritutako eztigileak

Ohi bezala, partehartze handiko eguna izan zen. Ezti lehiaketan, 63 pote dastatu behar izan zituen epaimahaiak. Gozogintzan, aldiz, 10 postre. Marrazki lehiaketak ere jakin-min handia piztu ohi du. Gaztetxo ugari animatu ziren.

Mila loreko eztiak:

1. Juan Galdeano Izagirre (Hernani).
2. Ramon Lopetegui Goikoetxea (Belauntza).

Lore bakarreko ezti argia:

1. Markos Pagola Kortajarena (Hernani).
2. Juan Galdeano Izagirre (Hernani).

Lore bakarreko ezti iluna:

1. Ageda Zeberio (Segura).
2. Asier Martin Pagaldai (Orio).

Gozogintza:

1. Patxi Franco.
2. Alaitz Olasagasti, DBH4ko ikasleak.

Marrazki lehiaketa

- 0-2 urte: Eder.
 2-3 urte: Niko.
 3-4 urte: Gari Agirrezabalaga.
 4-5 urte: Ibai (Aginaga).
 5-6 urte: Eñaut Soroa.
 6-7 urte: Ander Allur.
 7-8 urte: Unai Trullon.
 8-9 urte: Nadeth Sanchez.
 10-11 urte: Ekain Agirresarobe.
 11-12 urte: Mattin Agirre.



Marrazketa lehiaketako sari banaketa ekitaldian, ez ziren saritu denak bertaratu.



Ostirlean, apiterapiari buruzko hitzaldia eskaini zuen Angelo Jimenezek.



Saltoki handiak, atzeraldi ekonomikoa, internet...

ez da berdin

babestu zure herrikoa

herriko denda txikietan erosteak... handi egiten zaitu!

eman bizia, bizirik iraungo badu

hurbilag

Markapen Merkataritza eta Komertzioa (Ekarkez)



Urbilago Udala



ERIKO JAURLEKUA
GOBIERNO VASCO
REGLAMENTO DE ORGANIZACIÓN
MINISTERIO DE TURISMO Y CULTURA

BAZKIDEEN TXOKOA



GABONETAKO ZOZKETAK



Lau saski zozketatuko ditugu


Bi saski 2017an zehar
Publia jarri dutenen artean
eta beste bi
NOAUAKO bazkideen artean.

noaua! euskararen aterpe

Bazkide egiten bazara, opari eder bat jasoko duzu eta zozketa hauetan parte hartzeko aukera. 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Datorren astean, NOAUA!rik ez

Abenduaren 8an ez da NOAUA!rik izango,
hurrengo astekaria abenduaren 15ean argitaratuko dugu.
Abenduaren 22an urteko azkena, eguberrietako gehigarriarekin
eta 2018rako egutegiarekin.



Musikarien egunean, ospakizunak kalean

Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak deituta, han eta hemengo musika eskolak kalera irten ziren aurreko astean, Santa Zezili, musikarien eguna ospatzera. Zumartek ere bat egin zuen deialdiarekin. “Musikalean” ekimenaren harira, txaranga, trikitixa-pandero taldea, Musika Txokoko eta abesbatzako ikasleekin kalejira egin zuten azaroaren 22an Kaxkoan barrena.

Hainbat geldialdi egin zituzten bidean eta une horietan, euskal kanta ezagunak dantzaz eta abesten aritu ziren Musika Txokoko ikasleak. Gero Sutegin, kontzertua eskaini zuten trikititixa eta pandero taldeek, piano, biolin eta kitar joleek, Zumarte Gazte Abesbatzak, Ganbarakada taldeak eta Zangotz Akordeoi taldeak. Musika eta kantu saio bikaina.



Azaroaren 22an, Zumarte Musika Eskolako ikasleak eta irakasleak zuzenean aritu ziren Sutegin.



Sutegin saioen aurretik, kalejiran ibili ziren. Hainbat geldialdi egin zituzten eta tarte horietan Musika Txokokoak kantuan eta dantzaz aritu ziren.



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi.euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. atallu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefonia
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Borda Berri Kalea, 2 3º A
20170 Usurbil. Apartado Correos, Nº 26

ELORZA

OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
jon.elorza@hotmail.com

SAN ESTEBAN 5, BAXUA

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK
· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK
· URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



PLAKODUR

Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



Antonio
URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

USURBIL

J. R. IBARGOEN S.L.

ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.aroztzi.net jr.ibargoien@aroztzi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, BAXUA USURBIL



antenas
Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntiapax, 3 - 3.B. 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRITAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com · www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOKUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1. beheka · 943 36 80 04



ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33 - 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



ventamix

943 59 32 58
600 80 30 05

LUMON
Banatzaile Ofiziala

info@ventamix.com · Ugaldea polig. 18, USURBIL

Usoa Zumetak azken bi urteotan egindako lan grafikoa erakutsiko du Sutegin

Usoa Zumeta Bilboko Grabatuaren Nazioarteko FIG Jaialdian egon berri da. Hara eraman zuen obra da Sutegin erakutsiko duena. Azken bi urteotan, bere estudioan egin duen lanaren emaitza. "Orain arte, erakutsi gabea", Usoak NOAUA!ri aitortu dioenez.

Zazpi urte pasa dira bere azken erakusketa egin zutenetik. Geroztik ez dugu Usoa Zumetaren lanaz gozatzeko aukerarik izan Usurbilen.

Inaugurazioa, ostiral honetan

Ostiral honetan erakusketa berri bat inauguratuko du Sutegin, eta abenduaren 17ra arte egongo da zabalik. Azken bi urteotan egin duen lanaren erakusgarri izango da.

Usoa Zumetaren estanzioak margolari ezberdinen koadroetan oinarritzen dira. Honakoan, JL Zumeta, Dora Salazar, Koldobika Jauregi, Nestor Basterretxea, Ainize Txopitea, Edu Lopez eta Carmelo Ortiz de Elgearen margoekin osatutako lan grafikoa topatuko ditugu.

Egileekin adostutako lanak

Usurbilgo artista grafikoa adierazi digunez, "egiten di-



"Orain arte erakutsi gabeko lanak". Halakoxeak izango dira Sutegin aurkituko ditugunak. Argazkia: Ion Markel.

SUTEGIN ERAKUTSIKO DUEN OBRA

**JL Zumeta,
Dora Salazar,
Koldobika Jauregi,
Nestor Basterretxea,
Ainize Txopitea,
Edu Lopez eta
Carmelo Ortiz de Elgearen
margoekin osatutako
lan grafikoa
topatuko ditugu**

tudan lanak aurrez egileekin adostutakoak dira. Iradokizunak egiten dizkiet baina azken hitza margolariena

da beti". Beraz, elkarlanaren emaitza dira Usoa Zumetak egiten dituen estanzioak. Sutegin erakutsiko duen bilduma duela bi aste Bilboko Euskalduna jauregian FIG jaialdiaren baitan erakutsi zuen berbera da.

Obra osoa, salgai

Egunotan Sutegira hurbiltzen den bisitariak 22 artelan topatuko ditu aurrez aurre. Formatu ezberdineko piezak. Usoaren aitarenak izango dira handienak. Txikiak zein handiak, denak, erosteko moduan Sutegin ipiniak. Prezioak, 120 eta 700 euroren artean.

Abenduaren 17ra arte

Irekiera ekitaldia: Abenduak 1 ostirala, 19:00etan.

Ordutegia:

- Aste egunetan (abenduak 6 eta 8 barne): 17:00-20:00.
- Asteburuetan: 11:30-14:00/17:00-20:00.



Sutegin izango den estanzio bat.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321
publizitatea@noaua.eus



ARTZABAL
BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.eus

EGUNEKO MENUA KARTA
PLATER KONBINATUAK
OGITARTEKOAK · TOSTAK
MENU BEREZIAK

943 36 91 39

Haur Eskolako belardi goxoa



“Egur, gurpil, ohol eta eskailera moduko batean oreka mantentzen saiatzen gara. Jolas politak egiten ditugu, bai horixe!”.

Hemen gatoz Haur Eskolako belardi goxoa aurkeztera! Aurreko urtean hutsik erakutsi genizuen. Oraingo honetan ordea, bertan egin ditugun hainbat aldaketa erakusteko asmotan gatoz.

Gure guraso eta hezitzaileen artean, elkarlanean egindakoa izan da. Hainbat ideia aireratu eta handik eta hemendik materiala biltzen hasi ziren...

Pentsa, eskolan ahaztuta zizutuzten ohol zaharrek ere balio izan digute!

Eta hara hemen, gaur egun nola dugun gure belardi polita!

Eguzki goxotan bertan asko gozatzen dugu. Hostoak, hariak, txoriak, belarra, sugandilak, intxaurreak... Orgatila hartuta alde batetik bestera joaten gara. Izugarritzko garraio lanak ikusten dira gure artean!

Egur, gurpil, ohol eta eskaile-

ra moduko batean oreka mantentzen saiatzen gara. Jolas politak egiten ditugu, bai horixe!

Eta eguraldia heze xamarra bada ere, berokiak eta katiuskak jantzi eta txoko polit honetan gozatzera!

Hala ere, ezkerreko argazkian ikusten duzuen bidexka hori luzatzea gustatuko litzauguke. Norbaitek horrelako enbor zati batzuk soberan izango balitu eta ekarriko balizkigu,

asko eskertuko genioke!

Ah eta eskerrik asko guraso guztiei, horrelako belardia ez genuke izango zuen laguntzarik gabe. Mila esker.

Familia! Sentitzen dugu baztutan etxera arropa zikinduta eramaten badugu ere, baina horrela egiten jarraituko dugu, primeran pasatzen dugu eta!

Mila esker

Haur Eskolako haurrak

Haurrentzako ekitaldi zikloa Aginagan

Euskararen Eguneko ekimenen ostean, Antxomolantxa Elkartek bi hitzordu antolatu ditu abenduaren 16 eta 17ko astebururako, urte amaierara arte osatu duen egitarau zabalaren baitan:

Abenduak 16, larunbata

■ 11:30 Badut ipuin musikatua haurrentzat.

■ 17:30 “Gorputz higiena” clown saioa DYA-koen eskutik.

Abenduak 17, igandea

■ 17:30 Haurrentzako zinea ludotekan: “Winkyren zaldia”.

Antolatzailea: Antxomolantxa Elkartea.



Abenduaren 17an igandea, ‘Winkyren zaldia’ filma Aginagako ludotekan.

Gabonetan, udaleku irekiak Udarregi ikastolan

Ikastolen elkarteko aisialdi-taldeak LH 5 eta 6 mailetako ikasleei zuzenduriko programazioa eta robotikari buruzko udaleku irekiak antolatu ditu eguberrietarako Udarregi Ikastolan bertan; abenduaren 26tik 29ra, 09:00-13:00 artean (zaintza zerbitzua 08:30etatik). Taldea osatu ahal izateko gutxienez 10 lagunek eman beharko dute izena. Izen ematea zabalik abenduaren 15era arte.

Abenduaren 9ko Parisko mobilizaziora joateko autobus zerbitzua

A benduaren 9an, “Denak Pariserat”. Hortxe Euskal herritarrei luzatu zaien gonbita. Euskal presoek aplikatzen zaizkien salbuespenezko neurriak aplikatzeari utzi eta haien zein haien senideen eskubideen aldeko inoizko mobilizazio handiena izatea nahi dute Bakearen Artisauak Frantziako hiriburuan deitu dutena.

Frantziako Gobernuak ere Euskal Herriko bake prozesuan inplika dadila eskatuko da Parisko kaleetan. Milaka lagun espero dira bertan. Asko trenez joango dira, baina beste hainbat Euskal Herriko irtengo dira autobusetan. Usurbildik ere bus zerbitzua antolatu dute. Aitzagan eman dezakezue izena. Mobilizazioa girotzeko ekitaldia burutu zuten frontoian aurreko larunbatean. Parisera joateko gonbita luzatu dutenen artean Ernai Usurbil dago. “Denak etxera ekartzeko Aben-



Mobilizazioa girotzeko ekitaldia egin zuten larunbatean Usurbilen.

ABENDUAREN 9AN

Parisera joateko autobusa antolatu da eta izena emateko zerrendak Aitzagan ipini dituzte

duak 9an denak Pariserat!”, deitu dute sare sozialen bidez.

Elkarretaratzea

Azaroaren 24an Mikel Laboa plazan deitu zuen hileroko elkarretaratzean, Usurbilen

Nahi Ditugu bilgunetik adierazi zutenez, “gogoratu, datoren abenduaren 9an Parisen izango den manifestazioaren garrantzia. Txikiak badira ere, Gobernu frantsesa keinu batzuk egiten hasi da eta zentzu horretan bultzatzeko berebizikoa da gure oihua helaraztea”.

Abenduak 9, larunbata: manifestazioa Parisen

■ 11:00-12:00 Euskal Herriko etorritako autobusen heldzea Montparnasse Geltokira.

■ 11:30 Elkarretaratzea Montparnasse geltokiaren aintzinean, animazioen hastapena, Euskal Herriko etorritako trenetara.

■ 12:00 Presondegien martxari harrera.

■ 12:30 Manifestaldiaren abiatzea. Euskal Herriko talde aintzek alaituko dute: joaldunak, txaranga, trikitiak, gaiteroak, txistulariak, dantzariak etab... Kamioi zono baten gainean artista andana batek manifestaldia animatuko du: Bad Sound System + Fermin Muguruza, Zebda-ko Mouss eta Hakim, Ogres de Barbak-eko Fredo, Oreka TX, Roce etab...

■ 14:00 Manifestaldiaren heldzea. Hitz hartzea.

■ 14:30 Kantuak.

■ 15:00 Elkarretaratzearen bukaera, autobus eta trenetara itzulera.

■ 17:00 Gaualdia Parisko Euskal Etxean.

Informazio gehiago: artisansdelapaix.eus

Emakumezko presoek errealitatea plazaratu dute

U surbilen Nahi Dituguk, Matrakak Talde Feministak, Usurbildiko Ernai eta Sortuk deituta, elkarretaratzea egin zuten azaroaren 24an Mikel Laboa plazan. Hitzorduak euskal presoek eta haien senideen eskubideen aldeko eta Azaroaren 25eko Emakumeenganako Indarkeriaren Kontrako Eguneko aldarriak lotu zituen.

Gogorarazten zuten emakumeen aurkako indarkeriak “hamaika ertz ditu. Euren artean elkargurutzatu egiten dira zapalkuntzak”. Elkarretaratzeak hori guztia bistaratu nahi izan zuen, “fokua, emakume eta ama giltzape-



Azaroko elkarretaratzean elkarte ezberdinak batu ziren, tartean, Ernai, Matrakak Talde Feminista, Sortu eta Usurbilen Nahi Ditugu.

tuen gainean jarri dugu”. Olatz Lasagabaster, Patxi Uranga eta Xuaren egoera ekarri zuten gogora. “Aipatzekoa da nola areagotzen diren jendarte honetan emakumei egotzitako

rolak, esaterako, umeen zaintzari dagozkionak. Olatzek berarekin du Xua eguneko hogeita lau ordur; Patxi, aldiz, ez du halako “eskubide” edo “betebeharrik”. Legez debekatu du. Aurrez aurrekoetan eta bisitetan bakarrik ikus dezake Xua”. Urruntze politiken eragina pairatu behar dutela salatu zuten, sorterritik 564 kilometro egon eta emakumeentzat “egokitua” ez dagoen espetze batean.

“Xuak oraindik ez du Usurbil ezagutzen. Bere askatasun uneak dispertsio-politika ankerak lapurtzen dizkio. Ez hori bakarrik, bere senitarteko eta lagunekin gara ditzakeen harremanak ere eragozten ditu”.

Zaparraren maketa eskuragarri

Sormen iturri agortezina dugu Harane futbol zelai ondoko musikarien gunea. Berriz ere handik, Haraneko labetik datorkigu albisteak. Zaparra musika taldeak edo Jon Mikel Azpiazu, Mikel Romero, Jon Guadix eta Endika Larrañaga laukoteak “Putzu sakonetik” lan berria argitaratu du, estreinako maketa, Irungo maketa txapelketara aurkeztu eta sarituak izan ostean. Ateak zabaltzear dituen Durangoko Azokan eskuragarri izango duzue, baita herrian bertan ere. Pozik dira, eginiko lanaren emaitzarekin. Talde izaera indartzeko ekarpen ezinbestekoa ikusten dute eskuartearen lan propio bat izatea.

“Putzu sakonetik” irten dira laneko abestiak?

Zaparra: Gure ikuspuntua bezalakoa da. Gure kantak kritikoak izan daitezten saiatzen gara. Gure ikuspegia da gizarte putzu sakonean dagoela. Putzu sakonetik hasi genuen, aldatzen joateko, putzu horretatik ateratzen saiatzeko.

Lau abesti. Espresuki maketa honetarako sortutako abestiak izan dira?

Hasiera batean bertsiok jotzen genituen, gure kantak sortzeko garaia zela erabaki genuen arte. Sormen lan horretan jada kontzertuetan jotzen genituen pare bat kanta genituen. Pixkanaka beste hiru sortu genituen. Irungo Maketa Lehiaketara aurkeztu eta hirugarren postua lortu genuen. Egun maketa bat grabatzea oso garestia da. Lehiaketari esker, hiru kanta grabatzeko aukera izan genuen. Eta jada bi aurretik grabatuak genituen, laugarren bat maketan txertatzea erabaki genuen.

Nolakoa izan da ekoizpen prozesua?

Iñakik eta Txofok eman ziguten Irungo Maketa Lehiaketa-



Taldekide bat falta da, Jon Mikel. Eskuko telefonoko irudian ageri da.

ZAPARRA

Jon Mikel Azpiazu, Mikel Romero, Jon Guadix eta Endika Larrañaga laukoteak lan berria argitaratu du, lehen grabazioa, Irungo maketa txapelketara aurkeztu eta sarituak izan ondoren

ren berri eta aurkezteko esan ziguten. Azken unean, aurkeztea erabaki genuen. Pare bat kanta grabatu genituen Haraneko gure lokaleko entseguan biek. Eskerrak biei, izugarri lagundu digute, beraiek gabe hau oso desberdina izango zen. Lan handia hartu dute berez maketa zena editatu eta grabatzen. Gazte saria irabazi

genuen, publikoaren bozkei esker. Finalerdian oso gustura aritu ginen. Gure estiloan jotzen genuen, lurrean, ez ohol-tza gainean. Horrek abantaila eman zigulakoan gaude. Gurekin jo zuten jendea ezagutu genuen, oso jatorrak denak.

Zuen lehen lana, kuttunena?

Zerbait egiteko gogoia bagenuen, ze bestela, kontzertu batean zurea den ezer ez duzu eskaintzeko, bertsiok asko. Maketa batekin joanez gero, musika taldea beste modu batera ikusten da. Gaur egun talde bat ez da taldea, kaleratutako lan bat ez badu. Gure maketak adibidez abantaila handi bat ematen digu; edozein lekutara jotzera joan eta jada izatea maketa hau eskura, gero modu

digitalean, sarean, jendeak gu ezagutzeko. Bertsiok talde gisa hartzen zaituzte bestela.

Haraneko labetik atera da zuen estreinako lana. Faktoria horretatik beste bat gehiago. Badu bizitza Haranek.

Betea dago. Ordu pilo sartuak gaude Haranen eta bertan grabatzeak ere xarma pixka bat badu. Zuk entseatzen duzun tokian, zure giroan, gainera ezagunekin, sagardo pixka batekin lagunduta oso ondo atera zen.

Aurtengo uda parte ere mugitua izan duzue, iazkoaren pare?

Aurten askoz gehiago. Iaz beste baxujole batekin aritu ginen, aurten Endikarekin hasi gara eta oso gustura gabiltza. Kontzertu dezente gehiago lortu ditugu. Hiru kontzertudun asteburu bat ere izan genuen, oso ondo. Iaz gehiago jo genuen hemen inguruan; herriko eta auzoetako festetan. Aurten gehiago irten gara, Nafarroan Astitzen jo dugu urrutien.

Plaza gustukoena?

Asteburu gustukoena Legazpin, Antzuolan lo egin, zuzenean Irunera joan jotzeko, ajearekin jo genuen eta gero gau berean Zubietan aritu ginen, oso gustura.

Aitzagan ipini dute maketa salgai

Durangoko Azokan izango da zuen maketa salgai?

Musika Zuzenean-en standean aurten aukera eman digute talde txikiok, lan kaleratu berriak beraien standean jartzeko prezio onargarri batean. Aurten han ibiliko gara. Gure maketa han izango da.

Nola ikusten duzue taldeak iaztik hona egin duen bidea? Talde bezala garapen bat egon

da. Gure kantak atera ditugu, maketa oraintxe aterata, talde ona egin dugu. Askorekin hitz egin dugu eta ez dute talde harreman hori. Guk adibidez kontzertu bat jotzen dugu eta gero laurok geratzen gara parrandan. Koadrilako jendearekin sortutako taldea da eta horrek asko egiten du, ohol-tza gainean nabari da. Esan izan digute gure kontzertua ikusi izan dutenek, gustuko dutela taldea ondo pa-

satzen ikusten gaituztelako. Konfiantza asko dago.

Maketa eskuragarri

Zaparrak iragarri moduan, abenduaren 6tik 10era ospatuko den Durangoko Azokan eskuratuko ahalko duzue “Putzu sakonetik” estreinako lana. Baina baita Aitzagan, Donostiako Alde Zaharreko Rekalde tabernan eta Lasarte-Oriako Ilargi tabernan ere.

52. Durangoko Azoka atarian

Euskal sortzaileen lan berrienak ikusi, erosi, entzun, ukitzeko garaia badator. Abenduaren 6tik 10era milaka euskaltzale hurbilduko da 52. ediziora heldu den Durangoko Azokara. 200 kultur ekitaldi baino gehiago iragarri dituzte eta 400 nobedade baino gehiago bilduko ditu azokak: 257 liburu, 92 disko, 19 aldizkari, 5 bideo eta bestelako 27 produktu. Tartean, usurbildarren sormen lanak.

Abenduaren 6tik 10era Durangoko Azokara gerturatuta, denontzako espazioa egongo den Sormenaren Lurraldean murgiltzera gonbidatzen gaituzte antolatzaileek.

Zortzi gune

8 gune izango ditu Durangoko Azokak: Areto Nagusia (gogoe-taren plaza), Kabi@ (digitalaren plaza), Saguganbara (txiki eta handien plaza), Plateruena (kontzertu handien plaza), Ahotsenea (sortzaileen plaza), Irudienea (ikus-entzutekoen plaza), Szenatokia (arte eszenikoen plaza), Azoka TB.

Jende mugimendu itzela ibiliko da, tartean bere lan berriak aurkezten hainbat eta hainbat sortzaile. Baita usurbildarrak ere. Etxeko uzta ikusgai eta erosgai izango duzue Durangoko Azokan. Baina honez gain, iragarri diren 200 kultur ekitalditik gorako eskaintzan ere usurbildarrak ikusiko ditugu disko edota liburuak aurkezten. Honatx momentuz, abenduaren 6tik 10era Sormenaren Lurraldean gerturatuko diren herritarrak:

Usurbildarren ekitaldiak

Abenduak 6, asteazkena

■ 12:00-13:30 Areto Nagusian: "Hasieraren hazia" sarrera hitzaldia. "52. Durangoko Azokari hasiera ofiziala emateko ekitaldia da honakoa. Yolanda Arrieta



Abenduaren 6tik 10era ospatuko da liburu eta diskoen azoka.

DURANGOKO AZOKAN

"400 nobedade baino gehiago aurkeztuko dira aurten: 257 liburu, 92 disko, 19 aldizkari, 5 bideo eta bestelako 27 produktu. Tartean, usurbildarren sormen lanak"

idazleak eta L'Atelier dantza eskolak elkarlanean "Hasieran hazia" lana eskainiko du. Gonbitez eta aurrez baieztapena emanda bakarrik parte hartu daiteke, aforro mugatua dagoelako".

Abenduak 7, osteguna

■ 16:20-16:50 Ahotsenea Zuzenekoak eremuan: "Erokomeri". "Hiru urte Euskal herriko hainbat herritako festa eta txoko dantza jartzen ibili ostean gure lehen diskoa grabatzeko jautzia eman dugu. Garate estudioak-en grabatu dugu Martxel Arkarazorekin urriko lehen bi asteetan. 10 kantuz osatutako diskoa dakarkigu, horietako bi instrumentalak direlarik: intro-a eta fandango arin-arina". Abesti gehienetan trikitia izango du oinarri eta kantutak ska-rock eta pop izaerakoak izango dira".

Abenduak 8, ostirala

■ 11:30-11:55 Ahotsenea Solasaldiak: Joseba Tapia eta "Besamo-

tzak".

Joseba Tapiaren bakarkako lanetako 12 abesti bildu eta berriro grabatu egin ditu, oraingoan hirukote formatuan eta kitarra elektrikoa jotzen duelarik.

■ 16:30-17:00 Areto Nagusian: Jakoba Errekondoren "2018ko Ilargiaren Egutegia".

"Ilargiaren Egutegiak nekazaritza ekologikoan eta biodinamikoan egin behar diren lanen laburpen bat jasotzen du. Hilabeteka lanen 12 adibide jartzen dira. Ilgora eta ilbehera. Hilabete bakoitza Pello Zabalak aukeratutako esaerek osatzen dute. Tenporen informazioa ere jasotzen da".

Abenduak 9, larunbata

■ 17:40-18:10 Ahotsenea Zuzenekoak: "Euskal Herriko Trikitixa Elkarte "Haziak". "Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen eskutik, trikitixako maketa lehiaketako 8 talde irabazleen (tartean Tipika taldekoen) 10 abestiz osaturiko diskoa da. Zuzeneko emanaldian 2 taldek hartuko dute parte".

■ 18:00-18:25 Ahotsenea Solasaldiak: Jakoba Errekondo & Antton Olariaga 'Landareak lantzen'.

"Komikia. Era erraz eta ulergarri batean eskainita landareak nola baliatzen hasi eta ikasteko gida. Bertan arlo desberdinak landuko dituzte: baratzea, lorategia, frui-

tu arbolak eta basoa".

Abenduak 10, igandea

■ 19:40-20:10 Ahotsenea Zuzenekoak: Odolaren Mintzoa, "Etsipenaren aurka".

"Bederatzi abesti zuzen bezain sakonez osaturiko lan berria aurkeztuko dute. Bertan, dotoreziaz nahasten dira pop-rockaren melodia gazi-gozaok, gaurkotasunez bustitako hitz gordinak, hardcore eta metalaren zutabeak dituzten oinarri musikal sendokin".

Usurbildarren argitalpenak

Musika

■ Eme: "Beleak elurretan", Mauka.

■ Erokomeri: "Izan".

■ Euskal Herriko Trikitixa Elkartearen maketa lehiaketako "Haziak" lana. Tartean, Tipika Taldekoen bi abesti entzungai: "Ezinaren eginaz" eta "Iraltz arina".

■ Joseba Tapia eta Besamotzak. Gaztelupeko Hotsak.

■ Odolaren Mintzoa: "Etsipenaren aurka".

■ Zapparra taldekoen maketa. "Putzu Sakonetik".

Liburuak

■ Arrieta Malaxetxebarria, Yolanda: "Bixenta txiki" / Haur eta gazte literatura - Denonartean.

■ Errekondo, Jakoba: "Landareak lantzen: urte osoko gida-liburua 2018" / Komunikazio Biziagoa, S.A.L.

■ Errekondo, Jakoba: "2018ko ilargiaren egutegia" / Komunikazio Biziagoa, S.A.L.

■ Larretxe Berazadi, Joseba (irudigile): "Casting-a" / Haur eta gazte literatura - Elkar.

Informazio gehiago:

durangokoazoka.eus

Abenduaren 16an, “Hamen Bea II” antzezlanana Sutegin

2015eko Kilometroak jaialdiaren aurkezpenean esketx txiki bat eskaini zuten. Hari jarraipena emanez, esketx labor hura urte hartako Sagardo Egunaren bezperan estreinatuta zuten “Hamen Bea” antzezlanean bihurtu. Orain, istorio haren bigarren zatia dakarkigute. Abenduaren 16an, Sutegin. Sarrerak dagoeneko salgai dira.

Ixabel Agirresarobek, Iñaki Agirresarobek, Pako Agudok, Mikel Alkortak, Mikel Elexpek, Paulino Ibargoienek, Kerman Errekondok, Alberto Pikabeak eta Ainara Ullatek ikuskizun ederra eskaini zuten duela bi urte. Bueltan dira berriz. “Ameriketetatik dirua eginda etorri berriak sagardotegia ireki du Usurbilen”, iragarri dutenez.

Sarrerak, 3 eurotan

Sarrerak aurrez 3 eurotan izango dituzue salgai Lizardin eta



“Ameriketetatik etorri berriak sagardotegia ireki du Usurbilen”. Hortik aurrera...

HAMEN BEA II

Abenduaren 16an, arratsaldeko 19:00etan Sutegin. Sarrerak Lizardin eta Txirristran topatuko dituzue, 3 eurotan

Txirristran. Antzezlan honen estreinaldia, abenduaren 16an 19:00etan Sutegin.

Muxurbilen laburmetraiak

Usurbilgo antzerki taldekoen emanaldi hau, abenduaren 16an izango duzue ikusgai, eguerdiko 13:00ean Sutegiko auditorioan. Egun horretan 12:30etan Sutegin bertan eskratu ahalko diren gonbidapenekin sartu ahalko da auditorioko hitzordu honetara.

Laburbira: filmak aurkezteko azken

eguna abenduak 15

2015etik hona ekoiztutakoak, fikziozkoak eta 18 minututik beherakoak izan behar dute. 2018ko urtarrilean aukeratu dira euskarazko film laburren zirkuituan eskainiko diren lanak.

Nora bidali lanak?

Laburbirarako filmak leire@topagunea.eus helbidera bidali behar dira. Abenduaren 15a baino lehen jasotakoak sartuko dira 2018ko Laburbirarako aukeraketan. Beranduago jasotakoak 2019ko Laburbirarako gordeko dituzte.


Soilik euskarazko lanak

Aurkeztu ahal izateko filmek euskaraz egindakoak izan behar dute, 2015etik hona ekoiztutakoak, fikziozkoak eta 18 minututik beherakoak izan behar dute.

Haimar Zubeldiaren omenezko bideoa sarean ikusgai

Urte luzeko ibilbideagatik Haimar Zubeldia zoriontzen edota eman duen guztiagatik eskertzen ageri dira etxekoak, lagunak, zaletuak, kirolariak edota herritarrak, aurreko omenaldi astea antolatu zuen Haimar Zubeldia Taldeak mimo handiz landu eta argitara eman duen bideoan. Hainbat zati azaroaren 18ko omenaldian ikusgai izan ziren.

Berarekin partekatutako oroitzapen asko berritzeko aukera dugu, lekukotza eta irudi baliotsu askoen bidez. Haimarren kirol ibilbidean



Haimar Taldeak landu eta argitaratu du ikusentzunezkoa.

gurutzatuta diren Usurbilgo Txirringulari Elkarte eta bera animatu eta babesteko sortutako Zubeldia lagun arteaz ere hizketan agertzen dira hainbat

herritar.

20 urte baino gehiago bizikletan izenburua du bideoak. Azaroaren 18ko omenaldi ekitaldian eskainia, Haimar Zubel-

diari buruzko elkarrizketa eta zorion mezua jasotzen ditu. Mila esker parte hartu duzuenoi eta barkatu ahaztu edo iritsi ez garelako agertzen ez zaretenok”, adierazi du sare sozialen bidez Haimar Zubeldia Taldeak.

Edalontzi serigrafiatuak salgai

Haimar Zubeldia Taldeak eta Usurbilgo Udalak antolatutako omenaldi asteko ekimenak finantzatzeko eta oroigarri gisa, edalontzi serigrafiatuak salgai jarri zituzten azaroaren 18an. 3 eurotan eskura ditzakezue azken edalontziak, bideotatik: aupahaimarzubeldia@gmail.com / 647 570 123.

Haimar Zubeldia: "Opari izugarria Usurbil, betirako bihotzean gordeko dudana"

NOAUA!ra helarazi duen ondoko idatzian, hitz batekin laburbildu du Haimar Zubeldiak bere aldeko omenaldi astean bizi izan zuena: "Uuaaaaauuuu". Dioenez, "ez dakit hainbeste merezi nuen baina bukaera hau ikusita erabat asebeteta geratu naiz".

Opari izugarria izan da beretzat egunotan biziakoa, "betirako bihotzean gordeko dudana!" dio Haimarrek. Esker hitzak baino ez ditu omenaldiko antolakuntzarentzat. "Eskerrik asko Ainhoa eta bere lan taldeari hainbeste maitasun jartzeagatik".

"Ez dakit hainbeste merezi nuen"

Hitz batez laburtu behar nuen bihotzean eta buruan nuena eta horixe izan zen atera zitzaidana: UUAUUUUUUUU!

Ez dakit hainbeste merezi nuen baina bukaera hau ikusita erabat asebeteta geratu naiz.

Asteazkeneko elkarriketan, Arritxurekin parez-pare goxo, gustora eta lasai egon nintzen kontu zaharrak berritzen. Behin bukatuta, erakusketa ikus-teko sekulako gogoia neukan.

Bertara sartu orduko barruak buelta eman idan. Maillot, dortsal, bizikleta eta argazki bakoitzaren atzean, kilometro piloaz gain, nere historio zati bat ikusi nuen eta etxean bezala sentitu nintzen Sutegian.



Azaroaren 18ko eguna antolatu zuten guztiei eskerrak eman nahi dizkie.

HAIMAR ZUBELDIA

"Oholtza gainera igo ziren guztiak, anaiaren bertsoa.... bihotza taupaka, poza, emozioa, irribarreak, onarpena eta berotasuna sentitu nituen Usurbilgo plazan"

Azkena atera nintzen handik eta barruak eskatuta, egunero egunero joan naiz erakusketara. Jende asko gerturatu omen da bertara, nere gertukoek hain jarri zuten polita....

Eta zer esango dut larunbatari buruz! Andatzako,

Kalexarko eta Sagardotegiko pelotoi handiak ikustea berezia izan zen neretzat. Egurdiko ekitaldia, oholtza gainera igo ziren guztiak, anaiaren bertsoa.... bihotza taupaka, poza, emozioa, irribarreak, onarpena eta berotasuna sentitu nituen Usurbilgo plazan.

Hitzik gabe geratu nintzen beste behin.

Jantzi nuen maillot horia eta nereia izan zen garaipena. Eskerrik asko Ainhoa eta bere lan taldeari hainbeste maitasun jartzeagatik. Opari izugarria USURBIL, betirako bihotzean gordeko dudana!

Haimar Zubeldia Agirre (Usurbildarra).

Eskubaloia

Kiroldegian

Abenduak 03, igandea

■ 10:00 Kadete mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.-Bidasoa Irun

■ 11:30 Jubenil mutilak, Euskal Liga: Usurbil K.E.- Bidasoa Irun

Usurbil K.E.-ren

zozketa

Marije arropa dendan xahutzeko 100 euroko balea zozketatu zuen Usurbil Kirol Elkarteak azaroaren 25ean. 8.708 izan da zenbaki saritua.

Futbola Haranen

Abenduak 02, larunbata

■ 10:00 Alebin mutilak: Udaregi 5A-Landaberri A

■ 10:00 Infantil neskek: Usurbil F.T.-S.A.N.S.E.

■ 11:30 Kadete neskek:

Usurbil F.T.-Arizmendi K.E.

■ 16:00 Erregional mutilak:

Usurbil F.T.-Lazkao K.E.

Abenduaren 17an, Ibaridin-Hendaia irteera

Abenduaren 17rako deitu du Andatza M.K.T.-k urteko azken txangoa; Ibaridin-Hendaia artekoa. Goizeko 07:30ean abiatuko dira autobusez Oiardo Kiroldegitik.

Izen-ematea, abenduaren 13a baino lehen

Irteerarako izena beraz aldeztetik eman beharra izango da, abenduaren 13a baino lehen.

Informazio gehiago: andatza.com

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
943 370 008

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ETXEBIZITZA

Salgai

Pisu bat salgai Kale Nagusian. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. Dena kanpoaldera. Ganbara prezio barruan. Prezioa: 205.000 euro. Tel. 629 631 838

Pisua eta garajea salgai kale nagusian. 3 logela, sukalde, egongela, komuna, kalefakzioa. Dena berrituta. Fatxada ere bai. Garajea 40 m² eta itxia. Biak batera edo aparte. Tel. 695 705 905.

Pisu bat salgai. 90 m². 3 logela handiak, 2 bainugela, jan-egongela, sukalde, jantokia aparte eta trasteleku. Dena kanpoaldera. 605 707 642. Prezio berria.

Gure Borda salgai: 5.600 m², borda, aterpea 943 42 96 82 / 637 293 471

90 m² pisua Kale Nagusian. 4 logela, 2 komun, saloia, sukalde handia, trasteleku. 657700408

Duplexa Kalezarren - Aizparrenea etxea, 176 m² (120 + 56). Garajea eta terraza. Igogailua eta fatxada berritua. 359.000 euro. 679002101.

Etxebizitza bat salgai Atxegalden. Alperroburu 8an. 3 logela, sukalde, egongela eta 2 bainugela. 25 m² trasteleku. 185.000 euro. 626347914

Kalezar auzoa, 3 gela handi, sukalde handia, komun bat. Gela guztiak kanpoaldera. Fatxada berrituta, teilatua egoera onean. Garajea, bi trasteleku. 135 m². 637 22 88 60

2 gela, komuna, sukalde eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukalde. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdik 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Alokairuan

Atiko bat alokatzen da kaxkoan. 2 terraza eta bista ederrekin. Tel. 665 720 913

Pisu bat alokairuan Santuenean. Oso ondo dago. Tel. 667 912 307 / 626 428 463

Pisua alokairuan, saltzeko aukerarekin. 3 gela, bi komun, sala-jantokia, sukalde, garajea, trasteroa. 699421239

3 logelako etxebizitza alokatzen dut Muna Lurra kalean. 943 36 53 58 / 661 43 63 53

Santuenean pisu bat alokatzen da. 679 366 415.

Logela bat alokatuko nuke. Neska bat naiz eta lanean ari naiz. Arduratsua eta garbia. 612 487 017.

Logela baten bila nabil, sukalde erabiltzeko aukerarekin. Tel. 697 241 684.

Negoio-lokal bat alokatzen da. Kafetegi edo taberna gisara nahiago, baina aukerak zabalik. Kaxkoan kokatua. 630 456 404

3 geletako etxea alokairuan; 600 euro gehienez. 665319105.

Alokairuko pisu baten bila nabil. 3 logela eta igogailua. Familia arduratsua eta nominarekin. Epe luzerako. Tel. 687 201 410.

Logela alokairuan Aginagan, pertsona arduratsu batentzat. Tel. 672 448 644.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Txakur bat dut. Erroldatua. 661 115 222

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

MOTORRA

Salmenta,

garajeak

Garajea salgai Txaramunto kalean. 23 m², ate elektrikoa eta itxia. 615744628.

34m²ko lokal komertzial bat alokatzen da Errekaxiki 5ean. 695723192

2 garaje marra alokairuan edo salgai, Olarriondo 4an. Banaka edo biak batera. Tel. 663 031 803

Kanping karroa salgai. Wolder tuareg markakoa. Muntaiak azkarra. Oso egoera onean. 657795284.

120 metro² lokal bat salgai. Alperroburu 3an. 699 306 158

Ganbara, atiko edo trasteleku bat erosiko nuke Usurbil edo inguruan. 630 490 844.

Kotxe bat salgai, 3 hilabete bakarrik ibilia. Oso kilometro gutxi. Renault Clio marka, gris argia eta

5 ate. 943 370 677

Garaje marra bat salgai Munalurran. Tel. 646 663 405

Vespa 125 T5 motoa salgai. Kotxe karnetarekin gidatu daitezke. 1990ekoa. Egoera oso onean. 1.200 euro, negoziagarriak. 646329441.

Daelin Message motorra salgai, 49 ziliindr. 6.400 km, 15 urte inguru. Istripurik gabe. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 637 760 816.

Garaje itxia salgai, 38 m karra-tukoa, Txaramunto, 12. Usurbilen. Mikel 665677195

Garaje itxia salgai, 38 m², Txaramunto kalea 12. Mikel: 665677195

Marradun garaje plaza bat alokatzen dut Bizkarre auzoan. Hilean 70 euro. 696 014 585.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Lan bila nabil. Umeak zaintzen, garbiketa lanak egiten, orduka, interna bezala. Tel. 642 238 949

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. Tel. 663 776 223.

Astelehenetik ostiralera, 08:00-15:00 artean haur zaintza eta etxeko lanetan aritzeko langile euskaldun bat behar dut. 656 730 759

Zerbitzari bat behar da, kartarekin lan egiteko. Larunbat eta igande eguerditan, lan egin nahi baduzu: 680 483 164

Zerbitzari lanak egiteko, neska edo emakume euskaldun bat behar da. Tel. 690 106 070

Aseguru sektorean espezializatua den gestore pertsonal baten bila gabiltza. Heziketa aseguru-etxearen esku eta libre egotea eskatzen da. Diru-sarrera altuak. jm.fandino@catalanaoc-

cidente.com. 699 760 873.

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Usurbilgo bizilagun bat naiz, eta orduka garbiketarak egiten lan egingo nuke. Tel. 674 570 534

Lan bila nabil. Etxeak garbitzen, arratsaldetan 2 ordu edo asteburutan. 663 776 223. Maribel

Lan bila nabil edo gabiltza. Pertsona helduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten; bulegoak, garajeak, portalak, poligonoak, edo enpresak. Sukaldean ere moldatzen naiz. Kotxea dut, eta esperientzia. 688 654 698.

Lan bila interna, esterna moduan, haur nahiz helduen zaintzan aritzeko. Esperientziaduna. 677 624 971.

Lan bila nabil. Interna, externa, aste burutan, gauak pasatzen... lan egingo nuke. Paperak eguneratuta eta esperientziarekin. 645 067 560

Emakumea eskaintzen da heldu nahiz haurrak zaintzeko. Interna edo esterna moduan. 697 221 372.

Emakumea lan bila haur, helduen zaintzan, etxeko lanak egiteko interna edo esterna moduan. Esperientziaduna. 617 998 582.

Garbiketa lanak, helduen zaintza lanak egiteko prest interna moduan, egunez edo orduka. 671 763 558

Mutil gazte bat naiz eta lan egingo nuke. Baserrian, animaliak zaintzen, pertsona helduak zaintzen, harraskan, arraina garbitzen... 688 802 851

Ekamume bat lan bila. Interna, externa edo orduka. Pertsona helduak gauz zaintzeko edo umeak zaintzeko edo arropa plantxatzeko. Prezio ona. 676 188 411

Zorionak Malen!

Azaroaren 26an, 7 urte beteko dituzu. Ondo pasa zure eguna eta muxu asko etxekoan partez.



Zorionak Maren!

Abenduaren 4an gure etxeko txikiak 4 urte beteko ditu eta denok ospatuko dugu. Txokolatezko muxu bat etxekoan partez.



Zorionak Anje!!

Azaroaren 25ean 8 urte beteko dituzu. Muxu pila bat Udane eta etxeko guztien partez.



Lan bila nabil. Interna, externa, orduka edo gauetan. Garbiketa lanak egiten, pertsona helduak zaintzen... 634 278 198

Neska ikasle eta gaztea eskaintzen da oporretan umeak zaintzeko. Tel. 632 504 672

Neska gazte euskalduna, klase partikularrak emateko prest egongo litzateke: euskeran, gaztelan, ingelesean eta frantsean goi maila eta tituluduna. 687025768 (Jaione).

Lan bila nabil. Orduka, gauetan... Pertsona helduak zaintzen edo garbiketari. Tel. 671 763 558

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka... edozein modutan. Tel. 638 877 627

Lan bila nabil. Interna bezala edo orduka eta astelehenetik ostiralerara. 690 146 067

Lan bila nabil. Interna bezala, orduka, gauetan... edozein modutan. Pertsona helduak zaintzen, garbiketa lanetan... 634 278 198

Neska arduratsua erreferentzia eta esperientziarekin eskaintzen da. Pertsona helduak edo umeak zaintzeko edo garbiketari lan egiteko. Interna moduan, orduka edo gauetz. 677 624 965

Neska farmazialaria segituan lanean hasiko nintzake. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketari, orduka. 622 217 818

Lokal bat salgai, Nagusia 5ean, 120 metro2. 699 306 158

Neska bat eskaintzen da orduka lan egiteko. Etxeak garbitu edo adineko pertsonak zaintzeko. Tel. 687 348 223.

Haurrak zainduko nituzke orduka: 619 355 819

Geriatría laguntzaile bezala, edo sukaldari bezala (euskal sukaldarien ezaqutza). 688 654 698.

Ileapaintzaile bat naiz, eta etxetan ilea orrazteko eskaintzen naiz. Aproposa pertsona helduentzat, edo etxetik atera ezin duenarentzat. 612 487 017.

Helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan egingo nuke. 632 587 450.

Asteburutan, interna bezala lan egingo nuke, pertsona helduak zaintzen. 602 871 835.

Etxeke lanak egiten edo garbiketari, umeak edo pertsona helduak

zaintzen edo sukaldari lan egingo nuke. Tel. 617 166 950.

Neska arduratsua lan bila dabil. Interna moduan eta orduka. Pertsona helduak edo umeak zaintzen edo garbiketa lanetan. Berehala lanean hasteko. 606267824

Lan bila nabil, umeak edo helduak zaintzen edo etxeak garbitzen. Tel. 632 587 450.

Etxeke lanak egiten, eta helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Paperak egunean. Interna

moduan ere bai. 667 281 660

Paperak eguneratuak dituen gaztea, geriatría laguntzaile tituluduna, tabernak garbitzen eta sukaldari laguntzaile gisa aritutakoa, orduka edo interno moduan garbiketa lanetarako edo helduak zaintzeko prest. 669 679 186

Emakumea eskaintzen da arratsaldeetan hiruzpalau orduz etxeke lanetan aritu edo adinekoak zaintzeko. 675 70 24 28.

Pertsona serio, arduratsua eta paperekin, orduka lan baten bila: plantxa lanetarako, haur eta adinekoen zaintza, garbiketa lanak, tabernan arraskan aritze-ko... 688 642 835/ 697 887 581.

BESTELAKOAK

Gitarra klaseak ematen dituen pertsona baten bila gaude. 657 795 378.

Irailaren 20an, goizeko 9:30ean Donostiara doan Usurbilgo autobus geltokian poltsa gorri batean galtza bakero batzuk utzi nituen. Norbaitek ikusi edo hartu badu deitu, 657 711 335 (Maite).

Irailaren 13an katurua txiki bat (ninf) galdu da. Txuria eta eskubiko hankan eraztun urdin bat duena. Ikusi baduzu deitu. Tel. 606 060 322.

Errege sagar ekologikoa eta etxekeko membrilloa salgai. Interesatuz gero: 656742048 (Miren) edo 656757850 (Arantxa).

Informatikako klaseak hartuko nituzke. Tel. 691 961 669.

Belarra mozteko makina elektrikoa (gutxi erabilia) eta enkortxadora salgai. 943363201

Bi artzai txakurkume Gorbea arrazakoak saltzen dira. 637 974 994

Kotxeke ume aulki bat salgai, 2-3 urteko grupokoa. Arroxa. 646 305 658.

Pago egurra salgai (txinisko eta ekonomikako egokia) 627355126.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (Ilehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiarde Kiroldegia.....	943 372 498	Kutxabank.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco SabadellGuipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkarte Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaua! Kultur Elkarte.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 30 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Ostirala 01 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 02 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Igandea 03 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Astelehena 04 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteartea 05 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteazkena 06 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Azaroak 30 - abenduak 10

Osteguna 07 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 08 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Larunbata 09 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Igandea 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ECHEVESTE ELOSEGUI, JORGE
Elkano 9 Behea, Hernani
943 55 20 87 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda abendua

01 ostirala

- **Mikel Laboa gogoan.** Egunean zehar, bere kantuak entzungai Mikel Laboa plazan.
- **Lehen Hezkuntzako kantaldia** Mikel Laboa plazan eguerdiko 12:10ean.
- **Usoa Zumetaren erakusketa** 17:00-20:00 Suteagin.

02 larunbata

- **Usoa Zumetaren erakusketa** 11:30-14:00 / 17:00-20:00 Suteagin.
- **Pirritx, Porrotx eta Marimotots Kiroldegan.** 16:00etan 18:30ean Oiardo Kiroldegan.

03 igandea

- **Usoa Zumetaren erakusketa** 11:30-14:00 / 17:00-20:00 Suteagin.
- **Euskararen Eguna.** Ikus 6-7 orrialdeak.

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek bi saio eskainiko dituzte Oiardon

Larunbat honetan, Usurbilen izango dira Euskal Herriko pailazo prezia-tuenak. Bi saio eskainiko dituzte Oiardo kiroldegian: Lehena 16:00etan, bigarrena 18:30ean. Sarrerak aurrez eskura daitezke Bordatxon eta Marije arropa dendan. Argiaren Usurbilgo Lagunek antolatu dituzte bi saioak.

‘Borobileen’ izeneko ikuskizun berria aurkeztuko dute. Honela dio sinopsiak: “Eguna esnatuaz batera, etxean hasi eta eskolan jarraitu, lagunartean eta kalean gero, elkarren arteko harremanak harilkatzen dira etengabe bizikidetasunaren amaraunean. Oraingoan, borobileen eseriko dira denak, begiak eta bihotzak

“Ni ere izan nintzen nerabe” kafe tertulia Potxoenean

Azaroak 30, osteguna

- 18:00 Kafe-tertulia Potxoenean: “Ni ere izan nintzen nerabe”.
- “Harremonak taldeak tratu onak lantzeko solasaldia eskainiko digu. Bereziki guraso eta irakasleei zuzenduta”.
- Antolatzailea: Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Saila.



Lehen saioa 16:00etan hasiko da eta bigarrena arratsaldeko 18:30ean. Biak larunbat honetan.

elkarri begira: Arauak ezarri, ardurak hartu eta banatu, antolatu, nork bere lekua hartu, pozak, minak eta desirak elkarri kontatu, errespetua landu, elkar ulertzen saiatu, erabakiak hartu...”

Eraginkortasun energetikoari buruzko ikastaroa

Zubietan burutu den energia diagnosiarren baitan, energia aurrezteko hainbat aukera antzeman dira. Honenbestez herritarrei eta negozio txiketako jabeei zuzendutako tailer bat antolatu da.

- Azaroak 30 osteguna.
- Lanbide Eskolako ekitaldi aretoan.
- Orduategia: 18:30-20:00.

Datozenak

Literatura-topaketa Suteagin

Abenduak 13 asteazkenarekin, Mario Benedettiren ‘La tregua’ liburuaren inguruan jardungo dute eta oraingo honetan ere, Ana Merino usurbildarra izango da gidaria. Gaztelaniaz izango da literatura-topaketa. Arratsaldeko 19:00etan udal liburutegian. Antolatzailea: Usurbilgo Udal liburutegia.

Jostailu erabilien azoka, hilaren 16an

Jostailu Azokako prestaketak lanak hasi dira. Ohi bezala, egun batzuk lehenago jostailuak Potxoeneako Ur-dintxo Aretoan jasoko dira. Abenduaren 14 eta 15ean arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara bitartean, hain zuzen. “Nirea zuretzat, zurea niretzat... aizu tori eta ekarri hori! Bertan geratzen diren elektronikoak ez diren eta pilik behar ez duten jostailuak Ez itxi begiak Elkar-teak jasoko ditu”, ohartarazi dutenez.

Abenduak 16, larunbata

- 11:00-13:00 Frontoian
- Antolatzailea: Hitz-Aho Udarregi Ikastolako Guraso Elkarteak.

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
RPS: 28/17
USURBIL

Otar-Goxo
Elkargaiak

Zubiaurrena, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil



San Tomas eguna ospatzeko **deialdia**



Noaua!k baserritar guztiak
gonbidatu nahi ditu

Herritarren sagardoa dastatzeko eta babarrunak ikusteko aukera izango da, besteak beste. Aurten ere lehiaketa bikaina izango dugu.



Abenduaren **17an**
igande goizez

Sagardo lehiaketa:

(Sagardotegiak ezin dute parte hartu lehiaketa honetan)

Sagardoa etxean egiten duenak herriko plazara ekar dezake herritarrek proba dezaten eta gainera, lehiaketan parte hartuko dute.

Partaide bakoitzak 8 botila ekarri beharko ditu, eta botila bakoitzeko 1,5€ ordainduko zaio.

Babarrun lehiaketa:

Ezaugarri hauek hartuko dira kontuan:

- **ITXURA:** osorik edo hautsita dagoen, zimurrak...
- **KOLOREA:** zenbat eta beltzagoa orduan eta hobeagoa.
- **BERDINTASUNA:** tamainaz, kolorez...elkarren berdinak izatea.
- **DIZDIRA:** berezko dizdira beste edozein produktarekin (olio, abrilantadore...) estali edo aldatua izaten bada lehiaketatik kanpo geratuko da.
- **GARBITASUNA:** partikula arrotzik ez izatea.

Parte hartzaile bakoitzak 1Kg babarrun ekarri behar du eta 12 € ordainduko zaio.

Informazioa eta epea:

- Babarrunak eta sagardoak Noaua!ra ekarri eta izena emateko datak:


**AZAROAREN 27tik ABENDUAREN 1era
ABENDUAREN 11tik 14ra (lau egunok barme)**

- Baldintzak eta gainontzeko zalantzak argitzeko deitu gure bulegora **(943 360 321)**

Sariak:

Babarrun eta Sagardo lehiaketetan, ondorengo sariak izango dira:

- **1. saria: 150€ + txapela**
- **2. saria: 90€ + kopa**
- **3. saria: 50€**



noaua

